

Aretxagazeta



Astelehenetik aurrera
eta Kultura sailak
antolatuta,

umeen txanda

izango da, jolas egin,
irteeratan parte hartu
eta, azken baten,
ederto pasatzeko.

ETA GAINERA...

Ze barri?

SANPEDROAK02



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 29
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 30
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik).

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRAREN HAMARGARREN URTEURRENA

Akordeoi Orkestra 10. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizunak uztailearen 20an amaituko dira, Euskal Herriko Gazte Orkestra Sinfonikoak egingo duen kontzertuarekin. Kontzertu horretarako sarrerak salgai daude dagoeneko Taberna Berrin, Arlutzen eta Iosun. Bestalde, hurrengo kontzertua Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak Edorta Aiastrui tronpetata jotzailearekin batera eta Iñigo Azpioleak emango dute uztailearen 13an herriko elizan.

ERRETIRATUEN IRTEERA

Basotxo erretiratuen elkarteak Donostiara, Hondarribiara eta Irunera joateko irteera antolatu du uztailearen 10erako. Hondarribian Gualupeko Ama Birjina bisitatuko dute. Izenematea uztailearen letik 5era bitartean egin beharko da. Irteeraren prezioa 15 euro izango da.

61/62 URTEETAN JAIOTAKO KINTTOEN ARGAZKIAK

Ekainaren 8an Labastidara txangoa egin zuten 1961/62 urteetan jaiotako kinttoek. Han atera zituzten argazkiak ikusgai jarri dituzte Artano tabernan. Ikusi gura dituenak bertatik pasatu dadila.

LORAMENDIRENAGENDA

BADIHARDUGU ELKARTEKO BAZKIDETZA KANPAINA, ZABALIK
Badihardugu euskara elkarteak bazkidetza kanpaina egiten ari da azkenaldian. Bazkide egiteko interesatuta bazaude, jo Loramendi Euskara Elkartera. Urtebeteko bazkidetza kuota 12 eurokoa da. Gainera, bazkide eginez gero, Badiharduguk *Deba Ibarretik Euskara Herrira* liburua oparituko dizue!

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Deba errekek gainezka egin eta uholdeak izan genituen

1992an, ekaineko azkeneko eguaztenean, hain zuzen ere, Deba errekek gainezka egin zuen Gipuzkoako hainbat herritan. Aretxabaletan San Martin pareko gunean egin zuen gainezka errekek, eta hainbat etxebizitzatan ura sartu zen. Edozelan ere, kalteak ez ziren oso handiak izan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Mari Elexpuru

“Tripazilla”

Zilborrari deitzen zaio *tripazilla*.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

‘Biblioporrak liburutegian’

- 0 URTETIK AURRERAKOENDAKO**
- ‘Tento bilduma’/ R. Alcántara
 - ‘Colección deditos’/ M. Figuerola
 - ‘De verdad que no podía’/ G. Keselman
 - ‘Manex eta Piarres’/ R. Méndez
 - ‘El perro en la luna’/ N. Moost
 - ‘Hamaika andere ausart’/ Oli
 - ‘La escuela infantil’/ C. Roederer.
 - ‘Non galdu ote zuen irria Ilargik’/ M. Sánchez
 - ‘Rosa Limón’/ H. Tullet
 - ‘Nora hoa Xirimola?’/ A. Hurmeneta

- 6 URTETIK AURRERAKOENDAKO**
- ‘Txomin Ipurdi’/ J. Arratibel
 - ‘Los cinco horribles’/ W. Erlbruch
 - ‘Olivia’/ I. Falconer
 - ‘Amets Gaito nere armairuan’/ M. Mayer
 - ‘Xaguxarra’/ J. Mitxelena
 - ‘La princesa viene a las cuatro’/ W. Schnurre
 - ‘La sopa de piedra’/ A. Vaugelarde

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK

ARETXABALETA Jon Kepa Zubillaga 28an. Zorionak eta muxu handi bat, Gureako lan-kide guztien partetik.	ARETXABALETA Iñaki Elorduizapatarietxe 30ean, Zorionak, etxeko guztien partetik.	ESKORIATZA Alberto Zubillaga Uztailearen 2an,... uff! Zorionak, etxeko partetik.	ARETXABALETA Zorione Santamaría 3an. Zorionak eta muxu handi bat, koadrilako lagun partetik.	ESKORIATZA Patxi Nevado 3an, 23 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

Durana 11, 2.
Udaletxe zaharra.

Ondo ibili San Pedrotan!




Sukaldeko Bateriak • Lapiko Lasterrak • Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3 / Tel.: 943 71 31 29 / Eskoriatza 20540

ATREBENTZIAEZPADA/ Urtien egitten ez dozun kirolrik egitten dozu udan?




MARTA IZAGIRRE
Langillie



LUIS MARTÍN
Langillie



HERMI MIGUEL
Langillie



LUIS MARI MADINABEITIA
Langillie



NEREA ETXEANDIA
Langillie



JOSE CARLOS BERGANTIÑO
Langillie

Ez. Umiekin ez jat denpora libre askorik geraketan eta pasiau besterik ez dot egitten. Batzuetan, umiekin igerilekura juen izen naz, eta lehen, bizikletan be ibiltten nitzen, baiñe oin, gutxi.

Ez. Egualdi onakin mendi-re juen izen naz, baiñe besterik ez. Motorrien ibilttie gustetan jat, eta urte osuen ibiltten naz. Seme nausixena igeri egittera jueten da, baiñe ni ez.

Ez. Ez dot bat be kirolrik egitten, ez udan ez neguen. Lehen, bai, gehixuago egitten neuen, baiñe oin, lana dala eta umie dala, kirolerako ez jat bat be denporarik geraketan.

Ez. Urtien ziher gutxi egitten dot eta udan be gutxi. Lehen, gehixuago egitten nauen, batez be, fubolien, eta mendire be jueten nitzen; semie euki geuene-tik, geruago eta gutxiago.

Ez. Udan neguen baiño lan gehixago eukitten dogu, eta ez dot denpora askorik eukitten. Dana dala, piraguis-muen federetie gureko nauke, mutillekin batera piraguan ibilttera jueteko.

Ez. Ez dot kirolrik egitten, ez udan ez neguen. Gustau egitten jat, baiñe ume txikixe dauket eta horixe da neure kirola, lanetik urten ostien umiekin pasiuen ibilli eta jolas egittie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK TANTAIA, POLITA ETA NEURRIKOA Bati baino gehiagori iruditu zitzaion motza zela tantaia domeka arratsaldean lurrean ikusi zuenean, baina zertarako behar dugu luzeagoa? Igo ezinka ibiltzeko? Iaz, behin eta berriro jausi zitzaien, eta azkenean, apurtutakoa jarri behar izan zuten. Aurten, ostera, berehala igo zuten, arazo barik, eta dotore asko dago, gainera, plaza erdian. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

Udaleku irekiak

Astlehenean hasi eta uztailean 19a bitartean ibiliko dira herriko umeak udaleku irekietan.

ASTEAN BEHIN / 5

Cyber-Industrialdea

Teknologia berriak erabiltzen eta aprobetxatzen erakutsi gura die SPRIk Aretxabale-tako enpresei.

KIROLAK / 6

Quebrantahuesos proba

Inoiz baino aretxabaletar gehiago joan zen Huescara Quebrantahuesos proban parte hartzera.

ASTEKODATUA

740

BAZKIDE DITU ARETXABALETA KIROL ELKARTEAK

Gaur, egubakoitza, egingo du UDAk, Aretxabaleta Kirol Elkar-teak ohiko Batzar Orokorra. 740 bazkide ditu elkarteak, baina azken batzarretara oso jende gutxi agertu izan da.

BESTEKEESANA

“

Begiratu liburuaren azpiko aldean. Nik bi atal idatzi ditut: bata, egungo bertsolaritzaren gizarte-argazkia,

bestea, bertsolaritzaren oreka eta desafioena. Oreka eta desafioena filosofikoagoa eta ateporalagoa da; baina, jakina, guk bizi izan dugun garaiari dariona. Gizarte-argazkiaren kaduzidada, aldiz, bertsolaritzaren aldatze-martxak aginduko du, ez dakit bertsolaritzaren bost esparruen argazkia nolako izango den hemendik 10 urtera.

Egia esan, han eta hemen idatzitakoan puzzletik abiatu naiz, nire hitzaldi eta paper zaharretatik. Plusa, izatekotan, sistematizazio txiki bat egitea, bai gizarte-argazkia esparruka ordenatuz eta, oreka eta desafioak apur bat gehiago azalduz. Azken atal honi diot kariño gehien.

JON SARASUA
'Bertsozalea' berripapera/02-05-30

HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



Nork zainduko gaitu...

Nork zainduko gaitu gu zaintzen gaituztenengandik? Azken aldian gure herriko hormek aldarrikapen ugari jaso dituzte. Batzuk pintada eran, herriko eraikuntza esanguratsuenak zikinduta, eta beste batzuk pankarta eran. Aldarrikapen horiek guztiak inoiz baino esanguratsua-goak dira, batez ere, komunikabideek jasotzen ez dituztelako (presoen eskubideak, euskararen ofizialtasuna, ingurumena...) eta horren ordez, manipulatu-tako albisteak kale-ratzen dituztelako.

Pintaden inguruan baino pintaden ganean egin dituzten beste pintada horien inguruan berba egin gura nuke. Gaez, intentzio txarrez eta aurretik idatzitako aldarrikapenak manipulatuaz egindakoak dira eta denok dakigu nortzuk dauden atzean. Euren inguruko mespretxuzko iritziak ezabatzeta normala iruditzen zait, baina besteek ez dute azalpenik. *Presoak Askatu* dioen lekuan *Akatu* jartzea ezin

dezakegu onartu, eta Presoak SOS esaten duen lekuan SOS kendu eta Presoak barrote artean sartzea ere ez. Horrek guztiak azalpen bat eskatzen duela iruditzen zait; izan ere pintadak egiten dituztenak zigortu egiten badituzte, zigor handiagoa merezi dute bigarren horiek egiten dituztenek eurak gure zaindariak izanda, gainera.

Pilota partidu baten herriko alkatearen kontra egin zuten domekan, eta egunkariak orriak eta orriak eskaini dizkiete aipatutako alkatea PSEkoa dela-

ko. Komunikabide horiek gure herrira etorri beharko lirateke hemen ere moralaren kontrako eraso egiten dela ikusteko, sinadurarik gabe noski. Komunikabide gehientsuenek herriak dioena ez dutenean entzuten edo aurkakoa esaten dutenean, aldarrikapenak kalean jartzea besterik ez zaigu geratzen, pintada, kartel edo pankarta eran. Hori ere adierazpen askatasuna da eta errespetatu egin beharko lukete.

“Aldarrikapen horiek guztiak inoiz baino esanguratsua-goak dira, batez ere, komunikabideek jasotzen ez dituztelako”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Handik eta hemendik

San Juanak Azatza aldean ere ospatu dituzte. 61 lagun batu ziren Matikuan afaltzeko, eta auzotarrak gustura ibili ziren.

Kultura arloko gaiekin jarraituz, herriko bi artistak erakusketa jarri dute Aramaion. **Idoia Elexpuruk** margoak jarri ditu ikusgai eta **Jose Ugartek** egurrekin egindako lanak. Domeka arte egongo dira ikusgai.

Kirol kontuak ere badituzte. Bi kirol proba garrantzitsu ospatu baitira: **Quebrantahuesos** txirrindulari proba eza-guna eta **Hiru Handiak** mendi martxa. Sekula baino aretxabaletar gehiago izan ziren bai baten bai bestean.

Bukatzeko, beste kontutxo bat. GOITBko **Xeleberri** saioan **Amaia Arenazak** saria irabazi zuen. Galdera bati erantzun, eta Bergarako Torrekua jate-txean afaria. On egin!

UDALEKU IREKIAK/ Zazpi urtetik gorakoek Oriora irteera egingo dute, eta arraunlarien egoitza bisitatuko dute hantxe

la berrehun umek eman dute izena astelehenean hasiko diren udalekuetan

MIRARI ALTUBE

Astelehenean hasiko dira aurtengo udaleku irekiak. Ia berrehun ume batuko dira plazan, taldeak osatu eta begiraleak ezagutzeko. Astelehenean hasi eta hilaren 19a bitartean izango dute jolasteko, eskulanak egiteko, edo igerilekura joateko aukera.

Astelehenetik aurrera ume eta gaztetxo ugari ikusiko ditugu kaleetan edo plaza inguruan paseoan, eskulanak egiten edo, besterik gabe, jolasean. Udaleku irekietako umeak izango dira, guztira, ia berrehun.

LAU ETA 12 URTE ARTEKO UME UGARI

Lau eta hamabi urte arteko 192 umek eman dute izena Kultura Sailak antolatutako udaleku irekietan parte hartzeko. Gehienak lau eta bost urte bitartekoak dira, eta adin horretatik gora egin ahala kopurua gutxitu egiten da. Ume horiek guztiak zaintzeko, berriz, 25 begirale egongo dira, Larraitz Inurrategi, Larraitz Antxia eta Eider Markaide arduradunen begiradapean. Atzo, eguna, izena emandako umeen



Plazan jolasean, Otala Zelaira bidean edo igerilekuan ume ugari ibiliko da.

gurasoekin batzarra egin zuten. Uztaileko hiru astean zer egingo duten azaldu zieten udaleku irekietako arduradunek; ohiko

irteerez gain, zein berrikuntza egongo diren ere zehaztu zieten. Bide batez, lasaitu egin zituzten, nahiz eta begiraleak gazteak izan,

umeak esku onetan egongo direla esanez.

ORIORA IRTEERA

Hiru asteetako egitaraua dagoeneko zehaztuta daukate. Eguraldiak zeresan handia izango du, baina argi dago edozein tenperaturara moldatuko direla. Jolasak, eskulanak eta txangoak izango dira ohikoak, baina badaude talde guztiek batera ospatuko dituzten egun bereziak ere: San Fermin eguna, Euskararen Eguna eta azken eguneko jaia. Otala Zelaira ere joango dira, baita igerilekura ere, eta ahal izanez gero, Garaiora joatea ere gurako lukete arduradunek. Horiez gain, zazpi urtetik gorakoek beste txango bi ere egingo dituzte, bata Galartzara gaua pasatzera eta bestea Oriora. Orion, gainera, arraunlarien kirol instalazioak ikustera joango dira.

Orain dela hamabost urte antolatu zituen lehenengo aldiz Kultura Sailak udaleku irekiak herrian. Ordu arte, umeak kanpora joan behar ziren udako hila-beteetan. 1987az geroztik, herrian bertan ere oso ondo pasa zezakete erakutsi zieten, eta geroztik, urte batetik bestera ume gehiago ematen dute izena.

Meza gutxiago izango dira bai parrokian bai mojen komentuan uztailean eta abuztuan

MIRARI ALTUBE

Uztailean eta abuztuan bitartean herriko abadeek, lehenik batak eta gero besteak, oporrak hartuko dituzte. Tarte horretan ez da mezarik falta izango, baina gutxiago izango dira bai parrokian bai komentuan.

Datozen bi hilabeteotan meza gutxiago izango dira Aretxabaletan, abadeek oporrak hartuko dituzte-eta. Uztailean, Bitoriano Aranburuk hartuko ditu oporrak eta abuztuan, berriz, parrokoak,

Antonio Astigarragak. Hori dela eta, bai aste barruan bai jaiegunetan meza gutxiago izango dira.

MEZAK ESATEKO ORDUAN ALDAKETAK

Aste egun goizetan mojen komentuan esaten den meza kendu egingo dute 19:00etan ematen dena bere horretan utziko dute, baina parrokian izan ordez komentuan izango da. Hiletaren bat izanez gero, ordea, komentuan izan beharrean parrokian izango da.

Zapatuetan eta jai bezperetan, komentuko 18:30eko meza kendu egingo dute. Hortaz, parro-

kian 19:30ean izaten dena bakarrik geratuko da.

Abuztuan, aurretik aipatutako aldaketaz gain, domeketan parrokian izaten den 11:00etako meza ere kendu egingo dute.

AUZOETAN OSO MEZA GUTXI

Abade falta auzoek igarri diote gehien, eta hemendik aurrera ere hala izango da. Uztailean eta abuztuan ez da mezarik izango auzoetan. Mendiolan, auzoek hitzaren liturgia esango dute, abadeirik ez dutenean egin ohi duten legez. Larrinora uztailean 10ean,

San Kristobal Egunean, Antonio Astigarraga joango da meza esatera eta uztailean 25ean, Santiago Egunean, frantziskotar bat izango da Koruetan.

IRAILEAN ERE, IKUSI EGIN BEHAR

Herriarrek dagoeneko badakiten moduan, Antonio Astigarraga parrokoa ez da itzuliko irailean. Haren ordez beste parroko bat ekarriko du gotzainak herrira. Oraindik ez du izendatu, eta hura etorri bitartean, abade bakarra egongo denez, mezen ordutegiak oporretakoa izaten jarraituko du.

AUKERA

ARETXAGAZETAK BANATZAILEAK BEHAR DITU lan poltsa osatzeko. Baldintza: 16 urte beteak izatea.

943 71 23 91

Zubia

oinetakoak




zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

Jon Díaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

TEKNOLOGIA BERRIAK / Batez ere, enpresa txikiei zuzendu nahi diete laguntza

Cyber-Industrialdea proiektua jarriko dute abian

MIRARI ALTUBE

Cyber-Industrialdea edo Enpresa Digitala proiektua aurkeztu zien SPRI erakundeak Aretxabaletako enpresaburuei duela astebete. Informazio eta komunikazio teknologia aprobetxatzen erakustea du helburu proiektuak, eta, batez ere, enpresa txikiei zuzendua dago.

Hogei enpresaburu baino gehiago batu ziren Aretxabaletako udal-etxean ekainaren 18an SPRI erakundeak egin zuen aurkezpenan. Interes handia piztu du Cyber-Industrialdea proiektuak.

TEKNOLOGIA BERRIAK APROBETXATZEN
Apiril bukaeran e-debagoiena egitasmoa sinatu zuten Debagoieneko udalek, hainbat enpresak bai eta Eusko Jaurlaritzak ere. Azken horrek orduan hartutako konpromisoa Cyber-Industrialdea Aretxabaleta proiektua abian jarrita beteko du.

Cyber-Industrialdearekin enpresei, batez ere, enpresa txikiei, informazio eta komunikazio teknologia berriek ematen dituzten aukerak aprobetxatzen erakutsi gura diete. Proiektuan gura duten enpresek hartuko dute parte, eta lehenengo, enpresa-aditu batek azterketa lana egingo du. Lantegiek teknologia berriak zenbateraino erabiltzen dituzten aztertuko du, eta hobetzeko aukerarik badagoen ikusiko du. Lantegiek teknologia arlo horretan laguntzarik behar duten ere



Enpresek teknologia berriak zenbateraino erabiltzen dituzten aztertuko dute.

zehaztuko du; azpiegitura eta aholkularitza ziurtatuko dituzten laguntzak, esaterako.

Uztailean hasiko dira azterketa lana egiten eta, behin diagnosa egin ostean, Aretxabaletako Industrialdeak eta bertan kokatzen diren enpresek Zerbitzu

Zentroa behar duten edo ez erabakiko dute. Zentro horrek teknologia berrien gaineko laguntzak emango ditu.

Esperientzia pilotua izango da, eta, emaitza onak izanez gero, beste industrialde batzuetan ere ezarriko dute proiektua.

LABUR

Kale bilkurak eta mendi martxa uztailean EPEH Aretxabaletako Plataformak antolatuta

EPEH Aretxabaletako Plataformak ekintza bi antolatu ditu uztailean barrena egiteko. Batetik, egubakoitzetan kale bilkurak egingo ditu 19:00etan Mitarte kale bukaeran. Kale bilkura horietan plataformak dituen helburuen berri emango diete herritarrei. Bestetik, mendi martxa antolatu du uztailean 7an. Kurtzebarrira joango dira, eta EPEH izara jarriko dute han. Elixabarrin, bestalde, hamarretakoa emango dute, trikitiak eta txalapartak girotuta. Murruxoren eta Zaraia MTren laguntza izango du plataformak.

TXUTXUMUTXUA



Giro polita izan zen San Juan bezperan

Ez zuen askorik lagundu eguraldiak, baina San Juan bezperako ekintzak errespetatu zituen, eta hori ere bada zerbait. Eder-to pasatu zuten umeek antzerkiarekin lehenengo eta buruhandiek ostean; baita gurasoek ere, euren umetxoak plazan dantzan ikusten. Gauean, berriz, *San Juan* abestuz bat su galanta egin zuten. Zezensuzkoak airean jarri zuen plaza, umeak etxera eta gaztetxoak jolasera; eta, bukatzeko, tantaia zuzen eta dotore utzi zuten plazan erdian Santa Ageda mutilek. /M.A.



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)

Tel.: 943 77 13 57

ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4

Tel.: 943 79 01 29

ARETXABALETA

J.J.
IRURE
ITURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

BEIRALAN KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatua
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Ofindegia - Gozategia


Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19

Basabe, 2 • 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

FOTOKIROLA



Aretxabaletako txirrindulari ugari Quebrantahuesos proban

Zapatuan jokatu zen Quebrantahuesos txirrindulari proba ospetsu eta gogorra. Espainiako Estatu eta Euskal Herriko txirrindulari ugari batu ziren, 4.600 inguru. Tartean, aretxabaletarrak ere bai, hogeitik gora izan ziren aurtan Huescan dagoen Sabiñánigo herriko irteeran. Helmugara gutxiago heldu ziren, berez ere oso proba gogorra izanda, aurtan, ibilbide aldaketak eta eguraldi beroak oraindik gogorragoa egin zuten-eta. 230 kilometroko proba izan zen zapatukoa; tartean, Somport eta Pierre Saint Martin portuak igo behar izan zituzten txirrindulariek, eta asko larri ibili ziren. Izan ere, goizeko zortzietarako izugarritzko beroa egiten zuen, eta 9-11 ordu bitartean bizikleta gainean ibili egin behar da! /MIRARI ALTUBE

FUTBOLA

Bittor Muxika izango da preferente taldeko entrenatzailea datorren denboraldian

Bittor Muxika eibartarra izango da UDAko preferente mailan dabilen taldearen entrenatzailea. Bittorrek lehendik ezagutzen du taldea, orain dela zazpi bat urte ere hemen ibili zen-eta; azken urteetan, berriz, Mutriku eta Eibar Urko taldeak entrenatu ditu. Jokalari batzuk ere fitxatuko dituzte datorren denboraldirako: Ekaitz Aramendi aurrelari eskoriatzarra eta Jon Unamuno atzelari arrasatearra. Oraingoz bi, baina besteren bat ere ekarri gura dute.

PILOTA

Aritz Kortabarria eta Andoni Altube txapelkunorde Aduzako Pilota Txapelketan

Aste bukaeran jokatu dute Aritz Kortabarria eta Andoni Altube gasteek Aduzako Pilota Txapelketako finala. Gambra eta Rezano gasteiztarrek izan zituzten aurrez aurre, eta 10-22 galdutuzten norgehiagoka. Oso hasiera polita izan zuen Aretxabaletako bikoteak, baina, poliki-poliki, gasteiztarrek gaina hartu zieten, nagusiagoak ere baziren-eta. Aritzek eta Andonik Oñatiko Txapelketa ere jokatzeko dabilta, bikoteka hori ere.

SQUASHA

Gaur, egubakoitza, jokatu da kirol etxeak antolatutako Squash Txapelketako finala

Aretxabaletako Kirol Zerbitzuek antolatutako Squash Txapelketako finala gaur, egubakoitza, jokatu da. Txapelketan ez da aretxabaletarrik ibili, eta atzo jokatu ziren finalerdietara oñatiar biltzaileak eta arrasatear eta zarauztar bana heldu ziren. Garikoitz Ibartza biltzaileak oñatiarrek Sergio González de Galdeano arrasatearren aurka jokatu zuen eta Oñatiko Harkaitz Laskurainek Zarauzko Santos Aranbururen kontra.

MENDIA

Joan den egubakoitza eta domeka bitartean, aretxabaletar ugarik egin zituen Hiru Handiak

Mendizale ugari elkartu ziren, tartean, aretxabaletarrak ere bai, aurreko aste bukaeran Hiru Handiak mendi martxa egiteko. Aurtan, Arabako Zalduondo herritik irten ziren, eta Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendiak zeharkatu zituzten.

LEIBAR
arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

Martini
E-FILLOTEBIDEA


Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABAleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



AZKARATE
ARozTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABAleta Tel.: 943 77 01 24



OPEL

Opel Zafira:
zure irudimenera egokituz.

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABAleta
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzeko dizugu sei hilabetera,
eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



ERRETRATUZHARRA

Almen taldeko futbol jokalarik gazteak

Almen Kirol Elkarteak 25 urte bete ditu aurten. Horrek esan gura du mende laurden baten hamaika kirol egin dituztela eta hamaika kirolarik jokatu dutela Almen Kirol Elkartean. Eta kirolari horietako batzuk ondoko argazkian dituzue.

Futbolak, beste leku askotan moduan, bere garrantzia izan du Almenen. 25 urteren bueltan, elkartearekin batera hasi eta hezi diren futbol jokalariek egon dira. Batzuek Almenen bakarrik jokatu zuten; banaka batzuk, baina, futboleant iritsi ziren. Almenen jokatu duten mutil kokxor asko, gerora, hor ikusi ditugu Realean edo inguruko herrietako preferente mailan futboleant jokatzen.

Argazkiko taldeak erretratua atera zueneko garaian, gazteen mailan jokatzen zuen. Maila horretan ez ziren gaizki ibili, baina jokalariek euren indarra aurreko urtean erakutsi zuten, infantil mailan, hain zuzen ere. Hamalau edo hamahiru urte besterik ez zuten, eta gogor ibili ziren Gipuzkoako Futbol Txapelketan. Kanporake-



tan finaleraino heldu ziren urte hartan. Edozelan ere, azken partiduan aurkari gogorra izan zuten aurrez aurre, Realeko talde gaztea, hain zuzen ere, eta horien aurka galdu egin zuten. Gerora, erretratuko mutil batzuek futboleant jokatzen jarraitu zuten, eta batek baino gehiagok UDAko preferen-

te mailan jokatu zuten.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Martxi Pérez, Angel Aldai, Carlos Azkarate, Jabi Balantzategi, Migel Angel Mateo eta Mikel Uribesalgo.

Behoko ilaran, ezkerretik hasita: Benito Arnaiz, Josu Azkarate, Jokin

Bengoa, Asier Aranguren eta Jon Amermendia. Lan handia egin zuten entrenatzailea ez da ageri argazkian; Etxeberria aretxabaletarra zen, *Etxeba* ezizenez ezaguna.

Argazkia: ALMEN KE
Informazioa: Jokin Bengoa



www.forumsport.com

Rossignol
Atomic
Fischer
Nordica
Lange
Head
Salomon
Dynastar
Skitrab
Lowa
Scarpa
K2
Nitro
O.Sin
Oxigen
Columbia
The North Face
Colmar
ACG
Ziener
Level
Dakine
Briko
Cébé
Carrera
Oakley
Eassun


Ternua
Mountain Hard Wear
Millet
Salewa
Solo Climb
Tuckland
Salomon
Peltz
Boreal
Asolo
Ferrino
Vaude
Garmin
Magellan
Neak Peak
Coleman
Grivel
Lorpen
Sportiva

Astore
Adidas
Asics
Mizuno
Reebok
Fila
Polar
Umbro
Diadora
Joma
Lotto
Speedo
Arena
TYR
Stress Out
BH
Tunturi
Oxbow
Sun Valley
Think Pink
Jansport
Gotcha...

Garibai Etorbidea 2-6
20500 Arrasate. Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

Euskararik
freskoena
lortuko duzu



ONDO PASAU SAN PEDRUEK!

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 ARETXABALETA

Tel.: 943 79 21 68

leintzeuskalteg@terra.es

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

Ondo igaro ditzazuela San Pedroak!

FAGOR



**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 28a / 86. zenbakia



SANPEDROAK02

ANDER GILLENEA



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3, ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

ZORIONAK ESKORIATZAR GUZTIOI!

ALKATEAREN AGURRA / Edorta Zubizarreta

Azkenekoz San Pedro jaietako agurra bota nuenetik hona urtebete pasa da. Aurtengoa, gogora datorkidan lehenengo kontua da herria hankaz gora daukagula, baina geure onerako izango dela espero dut.



Obra horien guztien ondorioz jaiak ospatzeko ingurua aldatu egin beharko dugu. Baina lasai egon, Jai Batzordeak egitarau aberatsa prestatu digu eta urtero bezalaxe ondo pasatzeko aukerak ez dira faltako.

Egitarau hori prestatzen lan egin duten guztiei mila esker, izan ere urtez urte erakusten baitigute ilusio, borondate eta konpromiso apur batekin gauza handiak egin daitezkeela. Gainontzeko eskoriatzar guztiei, antolatutako ekintzetan biziki parte hartzeko gonbidapena egiten dizuet, jaiak guztion artean egiten baitira.

Besterik barik, San Pedroetan herrian egon ezin zareten eskoriatzar guztioi agur beroa, eta ni eta nik ordezkatzan dudan Korporazioaren izenean jai zoriontsuak herritarroi.

Ondo pasa, baina ez pasa!

Gora San Pedro libre!



1961. urteko sanpedroak... Ordukoak bai jaiak!

Garaiak aldatu egiten dira eta horiekin batera, baita jaiak ere. Goiko argazkian azaltzen diren batzuek diote lehenagoko festak bestelakoak izaten zirela. Gardokirekin egindako dantzaldiak, lagun koadrilen arteko jokoak, zezenak... Oroitzapen onak ekartzen dizkiete orduko San Pedroek. Argazkia 1961. urtean ateratakoa da.

Neskak, goiko ilaran, ezkerretik hasita: Asun Errasti, ezezaguna, Gurtze Oianguren, Conchita Bengoa, Antonia Martínez, Blanca Sorme, Marilu Lazkano. Mutilak, berriz, ezkerretik hasita: Pepe Prieto, Luis Mari Villar, Jose García, Ramon Agiriano, Gaizka Usabiaga, José Juan Zubizarreta, Enrique Errasti eta Pako Masip.

Egubakoitza 2

19:00 Parrokiako Abesbatzak, lau ahots mistotan, H. Eslavaren *Salbea* abestuko du San Pedro elizan.

19:30 Jaietako hasiera emate txupinazoa herriko plaza Gero, txistulariak, buruhandiak eta Musika Bandarekin kalejira.

22:30 Nagusien Danborrada.

01:00 Zaragozana pirotekniaren SUZKO ERRUBERAK, kanposantutik.

01:15 DANTZALDIA Jose Anaiak taldearekin Gorosarri Plazan.



Gora San Pedruek!



Jatetxea • 7 txabola guztiz prestatuta • Urte osoan zabalik

GAZTAINUZKETA: NATURAREKIN BAT EGINIK

Informazioa eta erreserbak: 943 58 50 58 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

MUSIKA

MUSIKA ESKOLA BANDAK EKITALDI GARRANTZITSUENAK GIROTUKO DITU

Bandak ere zeresana emango du sanpedroetan

Bi danborradak girotzeaz gain, San Pedro egunean, meza osteko kontzertua emango du

MIRARI ALTUBE

Ez da ohikoa herri txiki batek banda izatea, baina gure kasuan halaxe da, eta dotore askoa izan ere. Sanpedroetan ere aurrena izango da jaiak girotzeko orduan.

Duela hamabost urte sortu zuten Musika Eskolako Banda Eskoriatzan. Orduetik hona, ez du hutsik egin sanpedroetan, eta aurten ere musika jarriko die ekitaldi garrantzitsuenei.

DANBORRADA BIETAN

Angel Bañares zuzendariaren gidaritzapean, Banda ko 42 partaideak buru-belarri dabilta entseguetan. Gaztetxoek 8 urte daukate eta nagusia 60ren bueltan dabil. "Ez da samurra guztiak elkartzea entseguetarako, lan-ordutegiak direla-eta, baina ahalegina egiten dugu", dio Imanol Andetxaga arduradunak.

Hainbat ekitalditan hartuko du parte Musika



San Pedro egunean, meza osteko kontzertua emango du Musika Eskolako Bandak Gorosarri plazan.

ANDER GILLENEA

Eskolako Bandak. Bai nagusien danborradan bai umeenean ere danborrari musika jartzen lagunduko die. San Pedro egunean, berriz, meza osteko kontzertua emango du

"Eskoriatzarrei gustatu bai, baina ez dute behar bezala estimatzen herrian bertan daukaten Banda"

eskoriatzar guztiak disfruta dezaten, "Gustatu bai, eskoriatzarrei gustatzen zaie musika entzutea, baina ez dute behar bezala estimatzen herrian daukaten Banda", dio Imanolek.

Zapatua 29

09:00 Herriko

txistulariekin kalejira.

10:00 PLATER TIROKETA

HERRIKOIA Gatzagako

Venta Frian.

11:00 Ume eta

gaztetxoentzako jokoak

animaliekin

Intxaurtxuetako plazan

(poney-ak, sokamuturra,

txerrikumeak...)

11:40 ELIZBIRA.

11:55 Txistularien

laguntzarekin Udal

Korporazioa San Pedro

elizara joango da.

12:00 San Pedro elizan

MEZA NAGUSIA.

Parrokiako abesbatzak

Perosiren *I. Pontifical* etaEslavaren *Tu est Petrus*

lau ahots mistoetan

abestuko dute.

13:15 MUSIKA ESKOLAKO

BANDAREN kontzertua

Gorosarri plazan.

19:00 ANDRA MARI

EUSKO DANTZARI

TALDEA Gorosarri plazan.

22:30 PILOTA PARTIDUAK

pilotalekuan:

Del Rey -Urberuaga

/Muruamendiaraz-

Iñurrategi.

Bigarren partiduan:

Xala-Lasa III /Titin III-

Zezeaga. (Zarauztarra

tabernan txartelak salgai

12 eurotan. Txarteldegian,

18 eurotan).

23:00 Koxka taldea

Gorosarri plazan.

**CIPRI'S
PUB**



Aranburuzabala 8
ESKORIATZA

**San Pedroetako
giro onena!
Zatoz!**

**Garbiketetan
profesionalak gara**

943 71 48 45

607 94 89 84

Laster web gunea: www.hemen-garbiketak.com

Gora San Pedroak!

DANBORRADA

LAU URTEK GORAKO 105 UME IBILIKO DIRA DANBORRAK ASTINTZEN

Danborren hotsak entzuteko ahalegina herrian

Herritarren laguntza ezinbestekoa da Danborradak iraun dezan. Aurten, justuan heldu da laguntza

AINTZANE GARDOKI

Ahalegin ugari egin da, aurten ere, guztira, 105 umek gogotik astinduko dituzte danborrak. Domeka arratsaldean, hortaz, kolorez jantziko dira herriko kaleak.

Urduritasuna nagusituko da kiroldegi inguruan domeka arratsean. Iltaran jarri eta danborrak hartuta, kiroldegian hasi, eta Olazartik Dorletaraino joango dira umeak desfilean. San Viatortik, erdiko kaletik behera, Gorosarrin eraku-

tsiko dute umeek azkeneko hilabetean egindako lanaren emaitza.

Antolaketa lanetan ari direnendako, aurtengo aldia prestatzea ez da lan erreza izan. Miren Díaz de Gereñuk sei urte daramatza Umeen Danborrada antolatzen, eta aurten, arriskua gertutik ikusi du: "Une larriak pasatzen ari gara. Herritarren laguntza ezinbestekoa da Danborrada egin ahal izateko. Gurasook gure seme-alabengatik egiten ez badugu, norengatik egingo dugu, ba?", galdetzen dio bere buruari Mirenek erantzuna topatu guran. Danborrada antolatu ahal izateko, hiru deial-



Herriko kale nagusietan barrena kolorea zabalduko dute umeek.

ANDER GILLENDA

di egin dizkiete herritarrei: "Danborrada bertan behera uztekoan egon gara. Egin dugun hirugarren deialdi larriari erantzun

egin dio jendeak, eta arrapaladan bada ere, irtengo gara danborrak jotzen", esan du Díaz de Gereñuk. Miren itxaropentsu ageri

da, dena dela. Izan ere, aurten laguntza eskaini dutenak urte batzuetarako izango direlakoan dago. "Niri min handia ematen dit Umeen Danborrada galduko dela pentsatzeak", azpimarratu du Mirenek. Eta Danborradaren ostean, trajeak gordeko dituzte, txukun, datorren urtean ere ganbaratik aterako dituzten esperantzarekin.

"Danborrada bertan behera uztekoan egon gara. Hirugarren deialdi larriari erantzun egin dio jendeak"

Domeka 30

12:00 Senior mailako emakumeen areto futbola: HEGOALDEA (Maila nazionala) ERRIOXAKO selekzioaren kontra.

12:00 Herriko hildakoen aldeko meza.

12:30 "EKIDAZU. LEHOIEK EZ DAKITE BIBOLINA JOTZEN" Kukubiltxoren umeentzako ikuskizuna Gorosarri plazan.

16:30 MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

Izenematea, ordu erdi lehenago. Prezioa: 2 euro bikoteko. Lehenengo saria: jasotako diruaren %50, garaikurrak eta txapelak. Bigarrena saria: jasotako diruaren %25 eta garaikurrak.

Hirugarren saria: %10 eta garaikurrak.

18:30 UMEEN DANBORRADA

20:30 LOS PÉREZ DE NOCHISTLÁN mariachiekin kalejira.

23:00 MARIACHIEN EMANALDIA Gorosarrin.



AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

*Ondo pasa ditzazuela
San Pedroak
eskoriatarrok
eta bertaratzen zareten
guztiok!*

Mendraka
Txakolina


Tel: 94 682 00 00
ELORRIO



Larmanta
Lentzeria eta umeen moda

Gaztainadui 21. Tel.: 943 71 53 87

Ondo pasau San Pedruek!



ELKARRIZKETA ARANTXA UNZUETA KULTURA TEKNIKARIA

Astelehena 1
Euskal Jaia

09:00 HERRIKO TXISTULARIEKIN kalejira.
12:00 TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK Gorosarri plazan. Akelarre Txaranga eta trikitilariak ibiliko dira kaleak alaitzen.
12:00 "ARGIZARIA ETA EZTIA. Eskoriatzako Prudentzioren konfiteria" erakusketa Gorosarri plazan.
13:00 Kalejira buruhandiek eta Trikitilari Eskolako trikitilariekin.
13:00 HERRI KIROLA Gorosarri plazan.
14:30 HERRI BAZKARIA Gorosarri Plazan. Bazkalostean, trikitilariekin erromeria.
19:30 EUSKAL PRESO ETA ERREFUXIATUEN aldeko KALEJIRA.
22:30 DISKO FESTA JOXEINA ETXEBERRIAREKIN.
24:00 JAI BUKAERAKO TRAKA.
Egun osoan, UMEENTZAT PARKEA Intxaurtuetan.



“Adin guztietakoak batzen gara egun horretan, euskarak lotzen gaitu-eta”

AINTZANE GARDOKI

Jaietako hirugarren egunean Koadrilen Eguna egin izan dute aspaldiko urteotan. Duela lau urte, berriz, Euskal Jaiak hartu zion txanda Koadrilen Egunari.

Laugarren aldiz izango da aurten, sanpedroetako hirugarren egunean, Euskal Jaia.

Historia laburra dauka Euskal Jaiak, baina bizia!

Koadrilen Eguna eman zion txanda Euskal Jaiari.

Jaien hirugarren egunean Koadrilen Eguna egin izan da luzaroan. Koadrilek ere, orain moduan, herri bazkaria egiten zuten, txaranga alaituta. Lehiaketak ere egiten zituzten.

Umerezko rallyak egiten zituzten.

Autoak, desegiteko tokietan hartzen zituzten koadrilek, eta guztiz mozturik herriko kaleetan frogak egiten zituzten nor-



gehiagoka. Autoek segururik ez zutela-eta, bukatu egin zen rallya. Poliki-poliki indarra galduz hasi zen hirugarren eguna.

Gazte Asanbladak antolatu zuen estreinako Euskal jaia?

Duela lau urte, jaiak aste barruan izan ziren. Jai

“EGASek egin zuen lehengo Euskal Jaia herrian”

“Herriko talde gehienek hartzen dute parte”

“Herrian izaten den euskal giroa ikustea merezi du”

programatik kanpo Gazte Asanbladak Euskal Jaia egin zuen eta oso egun polita eta arrakastatsua irten zen. Hurrengo urtean, guztion artean, Jai batzordean, Euskal Jaia jaietako hirugarren egunean ospatzea erabaki genuen.

Herritar eta Herriko talde ugari hartzen dute

parte Euskal Jaian ?

Egun hori antolatzeko batzorde berezia sortzen da. Udala beharrezko azpiegituz, erosketez eta kontratazioez arduratzen da. Erretiratu talde batek herri bazkarirako mahaia jartzen ditu. Amuska taldea taloak egin eta bazkaria zerbitzatzeko arduratzen da. EGASeko kideek harrikoaren eta garbitasunaren ardura daukate, eta horrela, jende gehiago.

Ekitaldi ugari prestatu dituzte.

Ekitaldiak baino gehiago, lortzen den euskal jai giroa garrantzitsuagoa da, nire ustez. Sanpedroetan gazteendako, umeendako eta edadetuendako hainbat ekintza egoten dira, baina Euskal Jaiaren egunean adin guztietako herritarrak batzen gara, jaiak disfrutatzeke, denok elkarrekin, euskarak berak lotzen gaitu-eta. Hori ikustea merezi du.

Zer esango zenieke herritarrei?.

Askori, eskerrak eman besterik ez, eta beste guztiei, jaiak disfrutatzeke.



Maulanda jatetxea

Ondo pasau
San Pedro jaiak!Maulanda Auzoa
20540 ESKORLATZATel: 943 71 47 20
943 71 54 56

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui, 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORLATZA

Ondo pasau San Pedruek!

IPUINA

NEU SORGINAREN IPUINA JOXE MIEL BARANDIARANEN BILDUMAN JASOTAKOA

Gatzagako ipuin bat Eskoriatzako Danborrada Txikian

Gatzagako andre batek, arropa garbitzen zuenean, zuhaitz adarretan zabaltzen zuen, eta gau osoan han uzten zuen lehortzen. Baina aspaldian arropa batzuk desagertzen zitzaizkiola eta, gau batean, arropa zaintzen geratzeko eskatu zion senarrari.

Gizonak hartu zuen urdai zati bat, sua piztu, urdai burrunzti batean jarri eta hura erretzen hasi zen. Han zegoen sorgin bat agertu zitzaionean.

Sorgina itsusi aparta zen, begi bakarra zuen bekokiaren erdian. Hark ere bazuen burrunzia eta, bertan, apo bat. Sutondoan eseri eta hura ere apoa erretzen hasi zen.

-Zuk *past-past* egiten baduzu, nik gauza bera egingo dut...- esan zion gizonari.

Gizonak sorgina ikustean sekulako beldurra izan zuen eta, burrunzia hartuz, begi bakar hartan sartu zion, itsu utziz. Sorginak herrialde osoan entzun zitekeen garrasia egin zuen eta gero, oraindik oihuka, gizonari galdezka hasi zen:

-Nola duzu izeña? Nola duzu izena?

Azkenean, honela esan zion gizonak:

-Ni neu naiz

Eta etxera joan zen.

Sortu zuen iskanbila apartekoa izan zen eta beste sorginak Euskal Herri osotik agertu ziren.

-Nork zauritu hau? - galdetu zioten.

Eta berak erantzun:

-Neu! Neu! Neuk zauritu nau!

-Heuk egin badun, guk ez dinagu zertan parte harturik eta beste noizbait beste erokeriaren bat egin nahi badun, egin ezan gu alde batera-utzita!

Eta etorri bezala, sorgin guztiak gauaren ilunean desagertu ziren, zorigaiztoko itsua oihuka eta zer egin jakin gabe utzirik.



Sanpedroetarako ohitura handirik ez herritarrek

Eskoriatzara jaietan joateko ohitura handirik ez da egon herrian, baina jai giroan bizi izateko nahia bai, beti! Rafleren bodegan, txikiteorako astoa ere lagun hartuta, herriko koadrila horrek "bete-


bete eginda amaitu genuen eguna bai guk eta bai asto gaixoak", esan digu Benedito Elkorobarrutiak. Ezkerretik hasita, *Kalu*, Eduardo Alonso, Anjel Etxaniz, Benedito Elkorobarrutia eta Segundo Gabilondo.



leniz sa fundizioak

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

Jai zoriontsu eta alaiak
izan ditzazuela!



ZUBIA

harategia eta
urdaitegia

Ondo-ondo pasau danok
San Pedrotan!

Santa Ana 11 • Tel.: 943 71 42 02



**ALTO DEBA
MARGOAK**

**Zorionak
eskoriatar
guztiori!**

**Dekorazio pintura
Pintura industrialala
Fatxadak**

Telefona 943 71 41 82 / 639 37 45 25
Faxa 943 71 41 82

***Jairik zorienttsuenak
opa dizkizue Lenizek!
Ondo ibili!***



KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

**Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru Ibiltokia, 31 • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 / Faxa: 943 71 31 45
Posta-e: rleniz@euskalnet.net



Eskoitzako jaixetan
egunez nahiz gabez
kalera errez
eta etxera nekez.



ESKORIATZAKO
UDALA

Ondo pasau San Pedruak !!